



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2025ko otsailaren 4ko bilkura

Bi mila eta hogeita bosteko otsailaren lauan, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, , DACHAGUER Peio, HEGUY Antton,. IRIART Jean Claude

Bilkurako idazkari izendatua izan da : FALXA Odile.

Deialdiaren eguna : 2025ko urtarrilaren 31a

Afitxatze eguna : 2025ko urtarrilaren 31a

2. ERABAKIA: EUSKAL ELKARGOAK ONARTUTAKO ESKUHARTZE FUNTSEN ONARPENA

(7.10 nomenklatura)

IKUSIRIK, Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorra eta bereziki L 5216-5 VI artikulua;

Ikusirik, Euskal Hirigune Elkargoak bere herrikideentzako egin duen eskuhartze funtsen araudia, 2023ko martxoaren 4ko Batzorde Nagusian OJ07 erabaki bidez onartua;

Ikusirik, Elkargoko Batzorde Nagusiaren 2024ko abenduaren 7ko erabakia non elkargoak bi eskuhartze funts onartu dizkion Ortzaize herriari, 75 645.92 € lurralde eremuaren zuzkidura gisa eta 30 000 € herriko forfaita gisa, Arrosategia etxearen eraberritzeko eta herriko etxea, bilkura gelak eta posta agentzia bertan ezartzeko;

Kontuan izanik eskuhartze funtsaren emateko Herriak eta Elkargoak bat datozen erabakiak hartu behar dituztela;

Aurkezpena entzun eta deliberaturik, Herri Biltzarrak:

- Onartu ditu elkargoak esleitu dizkion bi eskuhartze funtsak, 75 645.92 € lurralde eremuaren zuzkidura gisa eta 30 000 € herriko forfaita gisa, Arrosategia etxearen eraberritzeko eta herriko etxea, bilkura gelak eta posta agentzia bertan ezartzeko;
- - baimena eman dio, Auzapezari eranskinean den finantzazio hitzarmena izenpetzeko.

Kide kopurua : 15
Hor zirenen kopurua : 11
Balizko boz kopurua : 11
ALDE : 11
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.
Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2025ko otsailaren 4an

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2025/02/07an publikatu edo notifikatu ondoan, Eta
Prefeturan pausatu ondoan 2025/02/07an.